PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Ezkabako Gotorlekua

Ezkabako Gotorlekua

Ezkaban dago, Nafarroan.

Ezkabako Gotorlekuari

San Kristobal Gotorlekua ere deitzen zaio.



Mapa honetan kolore gorrian

Ezkaba non dagoen ikus dezakezu.

San Kristobal gotorlekua

1878. eta 1919. urteen artean eraiki zen

defentsarako estruktura bat da.

Estruktura hau arrokan eraikita dago

eta oso ongi babestua dago.

1934. urtean egon zen greba orokorra eta gero

Errepublikako gobernuak

gotorleku hau kartzela bezala erabili zuen.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Crisóbal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Presoen zenbakia asko hazi zen.

Presoetako gehienak preso politikoak ziren
eta gotorlekuan baldintza oso txarretan bizi ziren.

1040. eta 1945. urteen artean frankistek
gotorlekua presoentzako
ospitale bat bezala erabili zuten.
1945. urtean San Kristobal Gotorlekua itxi egin zuten.

Ez dakigu frankisten
gotorlekuko zenbat preso hil edo desagertarazi zituzten.
Ez dakigu ezta zenbat preso hil ziren
gotorlekuan zeuden bizi baldintza txarrengatik.
Pertsona askok uste duten
San Kristobal Gotorlekuan ehunka preso hil zirela.

Gaur egun gotorlekua Ejerzituarena da.
2001. urtean
Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiak gotorlekua
Interes Kulturaleko Ondasun izendatu zuen.

Esteka honetan Ezkabako ihesaldiaren
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen.

https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/ezkabako-gotorlekua#landmark-video-1

Hemen San Kristobal Gotorlekuko
argazki bat ikus dezakezu:

